



2008KO APIRILAREN 3KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko apirilaren hiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Iñaki Saldaña Herre-
ro eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- 2007KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Osoko Bilkurari 2007ko aurrekontu likidazioaren berri ematen zaio.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren 2008ko aurrekontuari egindako kreditu txertaketa bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketaren berri ematen zaio Osoko Bilkurari. Txertatzen diren kredituak guztira 765.665,09 euro dira, 2007ko likidazioan txertagarri gisa gelditu ziran guztiak eta kreditu hauek finantzatzeko, diruzaintzako gerakina, Diputazioak Areriarako emandako dirulaguntzatik 2007an onartutako eskubide izatera iritsi ez zena eta gainontzekoa KUTXArekin izenpetutako mailegutik erabili gabe dagoen kopurutik, gastuen guztizkoa osatzeko behar den zenbatekoa hartzen da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

...///...

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du azken denboraldi luzean egiten den lehenengo osoko bilkura dela hau eta bertara gogora ekarri nahi duela Isaias Carrasco, udal bateko zinegotzi izandakoa, duela egun batzuk erahila izan zena.

Bestalde eta gaiari lotuz, esaten du, azken urte hauetan kreditu aldaketetan esaten dutenean baieztatzen dela, hau da, aurrekontuaren onarpenerakoan abstenitu egin baldin baziren ere, aldaketak inbertsioei eragiten diela ulertzen dutela eta hauek udalerrirako onak direla eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
IV	Transferentzia arruntak	68.000,- €
VI	Inbertsio errealak	349.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		417.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
IX	Finantza pasiboak	417.000,00 €
GUZTIRA		417.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

...///...



...///...

IV.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZAREN 15. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamabosgarren egiaztagiria luzatu du. Hamabosgarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO eta LAUROGEI ZENTIMotakoa (179.236 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamabosgarren obra egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

V.- ARERIA ERAIKINAREN ERAIKUNTZAREN 16. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamaseigarren egiaztagiria luzatu du. Hamaseigarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO eta HIRUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMotakoa (130.799,71 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamaseigarren obra egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

VI.- ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSKAKETAREN BATEGINDAKO TESTUA.-

Legezko eta araubidezko hurrenez-hurreneko izapideak beteta, Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 28an egindako bilkuran, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, honek behin-betikoz onartzeko. Akordio hau, ondorengo, 2007ko maiatzaren 23ko Osoko Bilkuraren beste akordio batek osatu zuen, Iturgaitzaga – 6 H.J.A.ri eragiten dioten aurreikuspenei buruzkoa.

Euskal Herriko Lurraldearen Antolaketaarako Batzordeak 2/2007 bilkuran hartutako erabakia eta gainontzeko sektore-txostenak espedientera gehituta, Foru Erakundearen Diputatuen Kontseiluak, 2007ko ekainaren 12ko batzarrean, udalerriko planeamendu orokorraren berrikuspen espedientea behin-betikoz onartzea erabaki zuen, zenbait baldintzekin, eta Udal Erakunde honek bategindako dokumentua onartzeko eta bidaltzeko beharra xedatzea, berau publikatze eta indarrean sartze ondorioetarako.

Talde erredaktatzaileak eskatutako bategindako dokumentua idatzi du, egokitutako Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa barneratzen duena, foru akordioan ezarritako baldintzak jasoz, eta Udalak egindako zehaztapenak, Uren, Biodibertsitatearen eta Ingurumen Partaidetzaren, Ingurumen Kalitatearen eta Kultur Ondarearen Zu-

...///...

...///...

zendaritzek Euskal Herriko Lurraldearen Antolaketa-ko Batzordearen aurrean aurkeztutako txostenak aztertuta, hala nola Foru Aldundiko Garapen Eramangarriko Departamentuak egindakoa.

Zerrendatutako aurrekinen ondorioz, eta Toki-Araubide Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, maiatzaren 28ko 8/2007 Legeko Bederatzigarren Xedapen Gehigarriak aldatutakoa, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako kide guztien aldeko botuarekin, hamar (10) zinegotzi, Udal korporazioa osatzen dutenak guztira hamahiru (13) direlarik, eta beraz gehiengo osoa bertaratuta, adosten da:

Lehena.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Bategindako Testua onartzea, egokitutako Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa barneratzen duena.

Bigarrena.- Aipatu dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek, Toki-Araubide Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikulua ezarritako terminoetan argitalpena xedatu dezan.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiari atxikitako gainontzeko jarduketak betetzea.

VII.- JUANA IRIZAR IZA ANDEREAREN DOHANTZAREN BIDERAKETA.-

Juana Irizar Iza andereak, bere testamentuan, hemezortzi mila euroko (18.000 €) dirutza utzi zion Lazkaoko Udalarri, honek zaharren aldeko obra eta hauen begirunerako erabili zitzaizkion.

Hau honela eta dirutza honen erabileran andere honen borondatea bete izan dadin, zaharren alde herrian sortu asmo dagoen borondatezko lanetarako taldeari bideratzea planteatzen da.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VIII.- KUTXAKO 2 KONTSEILARI OROKORREN IZANDAKETA.-

Udal Osoko Bilkura honek, 2008ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Gipuzkoa Donostia Kutxako Gobernu Organuen izendapenean partehartzeko Tolosa, Oñati, Mutriku, Getaria, Mendaro, Ataun, Aia, Lazkao, Hondarribia eta Elgoibargo udalek osatutako udal elkartearen onartzea erabaki zuen.

Orain eta udal-elkarte horri bi ordezkari izendatzea dagokio, bere ordezkarekin batera. Hau horrela, honako izendapenak egitea proposatzen da:

- 1.- Titularra: Aitor Kerejeta Cid. Ordezkoa: Bittor Oroz Izagirre.
- 2.- Titularra: Josebe Astigarraga Lete. Ordezkoa: Andoni Aristi Ibarra.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du lehen ere udal-elkartearen osatzea erabaki zenean aurka bozkatu zutela, eta orduan emandako zioak berresten dituela orain ere, hau

...///...



...///...

da, ze onura dakarkion honek Lazkaoko Udalarari galdetzen duela. Gehitzen du beraien ikuspegitik udal-elkarte honen helburua alderdi politiko batek Kutxan indar politiko handia goa lortzea dela soil soilik, berez dagokion udal ordezkariatzaz gain. Azkenik esaten du guzti honengatik aurka bozkatuko duela eta gai honetan gobernu taldea egiten ari den erabileran partidistaren aurka azaltzen dela baita ere.

Alkateak erantzuten dio esanez udal txikiek elkarrekin elkartzeko eskubidea dutela ordezkariak lortzeko eta eskubide horren erabilera egiten dela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du PSOEko zinegotziaren erantzunez gobernu taldeari buruz esan duena ez dela horrela ze proposamena EAJk egiten duela eta ez gobernu taldeak, ze bera gobernu taldea dela eta ez dagoela ados proposamenarekin.

Serna zinegotziak barkamena eskatzen dio esandakoarengatik.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ), aurkako botu batez (PSE-EE) eta 2 abstentzioz (EB-B, PP) proposamena onartzea erabakitzen du.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



